



# Amantala ta mantela

*Philosophia & oilo zopia*

---

---

## Edorta Agirre

Ganbara, 32

978-84-9172-259-5

2022. urtea - 480 or. - 17x26 cm

29,00 €


---

---

Egileak derrepente erosiko lukeen liburua, elikadura munduko termino batzuen etimologiaz, historiaz, balioez... janzteko. Klaro, izan ere, 2. gama, 4. gama... zer dira gama horiek? Arrainak sagarrak baino gehiago asetzen gaitu? Bakailao hitza latinetik etorri ote zaigu? Zergatik diote adituek ardoak dituela usain eta kolore horiek? Fruta guztiek, landaretik erauzita, gozaten segitzen dute? Botilek ba al dute izen propiorik? Nutrigenetika hori existitzen al da? Infusioak irakin behar du ala ez? Zer dira tabu elikagaiak? Denetik jatea osasungarria al da, berez? Zer da ajea, biharamuna? Nondik datorkie izena Getaria herriei? Arrainetik mamia bakarrik aprobetxa daiteke? Okela gordin eta errearen artean zenbat «puntu» daude? Pikante guztiak berdinak al dira? Elikaduran ere, «piramideen» garaia pasea al dago? Zeintzuk dira «Zaporearen Kutxa» unibertsalean dauden Euskal Herriko elikagaiak? Atuna beti atun da, ezta? Ba al dakigu txokolate ona bereizten? Nola egiten da gazta orain? Eta orain arte? Untxia, lapina, konejua eta erbia animalia bera al da? Zer ote da biofilma?

«Bide oparoa jorratu ondoren, jakintza bilduz eta gizarteratuz, esku-zabal eta nasai, euskaraz beti, Edorta Agirreraren liburua horren denaren saio-islada aberatsa da, gurean inoiz osatu den osotuena, edozein hizkuntzatan dela. Bere edizioa hutsezinezko hitzordua da gure elkartearantz, ildo horretan sortua eta antzeko helburuak sustatua. Horregatik, berau babestea gure kultur gastronomikoa ondratzea da, baita zabaltzen laguntzea ere, egunoro aldatuz doan munduan erreferente emankorra izan dadin.»

X. Zabaleta



**Edorta Agirre**  
(Donostia, 1949)

Nafarra, euskaldun guztiak bezala. Euskal gizartean txertatzeko, euskaraz ikastea deliberatu zuen 1967an. Pilotari eskasa, bertsotan asmatu ez... orduan, denok egunero praktikatu bai, baina zokoratua dugun adarrean abiatu zen, enbor bila.

Jesuiten Unibertsitatean (1983) erosi zuen Arratsaldeko Euskal Filologia; arrantzale, sukaldari, euskal dialektologiako irakasle eta itzultzaile jardun bitartean, elikaduraz (nutrizioaz, tradizioez, lehengaiez, teknologiaz, trazabilitateaz, elikagaien segurtasunaz, antropologiaz...). *Egunkarian*, *Berrian* eta besteren batean ehun dozenatik gora artikulatu eta sei liburu idatzi zituen, eta saltsako beste hamabost bat euskaratu ditu, hainbat irratitan aritzeaz gainera. Izen handiko sukaldariren batentzat idatzi zituen testuak ere, askok bezala. Udako Euskal Unibertsitatean, Elikadura sailaren arduradun, 2000-2004 urteetan.

